


2023ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko ezkontzak % 9,1 gutxitu ziren

Urte osoan ezkontzak % 7,5 gutxitu dira

Euskal AEn, 2023ko laugarren hiruhilekoan, 1.513 ezkontza izan ziren, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 9,1 gutxiago (1.664 ezkontza), Eustaten datuen arabera. Ezkontzen kopurua % 27,6 jaitsi zen Araban (157), % 12,7 Gipuzkoan (489) eta % 3,1 Bizkaian (761). Bestalde, gutxienez ezkontideetako bat bertokoa duten 106 ezkontza Euskal AEtik kanpo inskribatu ziren (+% 3,9).

2023ko laugarren hiruhilekoan, ezkontza guztietatik 1.462 sexu desberdineko pertsonen artekoak izan ziren (% 96,6) eta 51 sexu bereko pertsonen artekoak (% 3,4), 27 gizonen artekoak eta 24 emakumeen artekoak. Bestalde, 10 ezkontzatik 9 zibilak izan ziren, % 92,8. Ehuneko hori % 91,5 izan zen 2022ko hiruhileko berean.

Euskal AEko ezkontzak Euskal AEn inskribatuak, hilaren arabera



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

2023ko laugarren hiruhilekoko 1.513 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 1.401 gizon eta 1.399 emakume ezkondu ziren. 1.151 emazteren (% 82,3) lehen ezkontza izan zen, eta 7 alargun (% 0,5) eta 241 dibortziatu (% 17,2) ere ezkondu ziren. Senarrei dagokionez, 1.166 senar (% 83,2) lehen aldiz ezkondu ziren, eta 10 alargun (% 0,7) eta 225 dibortziatu (% 16,1) berriz ezkondu ziren.

Ezkontideen adinaren arabera banaketari dagokionez, emazteen % 86,2k eta senarren % 91,3k 30 urte baino gehiago zituzten. 2022ko aldi berean, ehuneko hori % 84,6 izan zen emakumeen artean eta % 92,2 gizonen artean.

2023ko laugarren hiruhilekoan, emazteen % 24,7 eta senarren % 20,3 atzerritarrak izan dira. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ehuneko hori ehuneko 1,6 puntu igo da emakumeen artean eta 4,1 gizonen artean.

BALANTZEA 2023

2023. urteko behin-behineko zenbaketan, Euskal AEn bizi diren pertsonen ezkontzak 7.225 izan ziren, hau da, aurreko urtean baino % 7,5 gutxiago. 2019arekin alderatuta, ezkontzen kopuruak % 3,3 egin du behera.

Ezkontza zibilen ehunekoa % 90,6koa izan zen, 2022ko % 90 baino handiagoa.

2023an, emazteen % 19,3 eta senarren % 14,7 atzerritarrak izan dira. 2022an, ehuneko horiek % 18,2 eta % 12,4 izan ziren, hurrenez hurren.

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2023/IV

	2023/IV		2023/III			2022/IV		
	KOP	%	KOP	%	gehikuntza (%)	KOP	%	gehikuntza (%)
Ezkontzak	1.513	100,0	2.335	100,0	-35,2	1.664	100,0	-9,1
Araba / Álava	157	10,4	313	13,4	-49,8	217	13,0	-27,6
Bizkaia	761	50,3	1.016	43,5	-25,1	785	47,2	-3,1
Gipuzkoa	489	32,3	769	32,9	-36,4	560	33,7	-12,7
Euskal AETik kanpo	106	7,0	237	10,1	-55,3	102	6,1	3,9
Sexu desberdineko pertsonen artean	1.462	96,6	2.269	97,2	-35,6	1.606	96,5	-9,0
Kanonikoak	109	7,2	324	13,9	-66,4	141	8,5	-22,7
Zibilak	1.353	89,4	1.945	83,3	-30,4	1.465	88,0	-7,6
Sexu bereko pertsonen artean	51	3,4	66	2,8	-22,7	58	3,5	-12,1
Gizon artean	27	1,8	26	1,1	3,8	20	1,2	35,0
Emakume artean	24	1,6	40	1,7	-40,0	38	2,3	-36,8
Senar-emazteak	1.401	100,0	2.066	100,0	-32,2	1.533	100,0	-8,6
Ezkongabea	1.166	83,2	1.763	85,3	-33,9	1.217	79,4	-4,2
Alargunak	10	0,7	14	0,7	-28,6	10	0,7	0,0
Dibortzuatuak	225	16,1	289	14,0	-22,1	306	20,0	-26,5
< 30 urte	123	8,8	205	9,9	-40,0	120	7,8	2,5
30 - 39 urte	578	41,3	938	45,4	-38,4	637	41,6	-9,3
=> 40 urte	700	50,0	923	44,7	-24,2	776	50,6	-9,8
Espainiarrak	1.117	79,7	1.786	86,4	-37,5	1.285	83,8	-13,1
Atzerriko nazionalitatea	284	20,3	280	13,6	1,4	248	16,2	14,5
Emazteak	1.399	100,0	2.090	100,0	-33,1	1.567	100,0	-10,7
Ezkongabea	1.151	82,3	1.803	86,3	-36,2	1.275	81,4	-9,7
Alargunak	7	0,5	9	0,4	-22,2	8	0,5	-12,5
Dibortzuatuak	241	17,2	278	13,3	-13,3	284	18,1	-15,1
< 30 urte	192	13,7	323	15,5	-40,6	240	15,3	-20,0
30 - 39 urte	626	44,7	1.019	48,8	-38,6	676	43,1	-7,4
=> 40 urte	581	41,5	748	35,8	-22,3	651	41,5	-10,8
Espainiarrak	1.054	75,3	1.699	81,3	-38,0	1.205	76,9	-12,5
Atzerriko nazionalitatea	345	24,7	391	18,7	-11,8	362	23,1	-4,7
Ezkontzaren hilabetea								
Urria	680	44,9				813	48,9	-16,4
Azaroa	493	32,6				500	30,0	-1,4
Abendua	340	22,5				351	21,1	-3,1

(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2024ko Maiatzaren 21a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62